



A – 5. Curriculum Anitzeko Programa (CA)

Deialdiaren xedea

2011-2012 ikasturtean EAEko ikastetxe publikoetan Curriculum Anitzeko taldeak baimentzea, baita talde horietara bilduko diren ikasleak ere. Curriculum Anitzeko banakako programak irakasteko, ez da behar alde zuzeneko baimenik.

2011-2012 ikasturtean Curriculum anitzeko programak eduki nahi dituzten ikastetxe publikoek 1. eranskinari jarraituz eskatu beharko dute baimena, lanpostuen zerrendan Curriculum Anitzeko irakasleak esleitu badizkiete ere. 2011-2012 ikasturterako Curriculum Anitzeko programetarako baimena eman zaien ikastetxeek baimen berria eskatu beharko dute. Argibide hauetan ikasleek eta Curriculum Anitzeko taldeek betetzeko zehaztutako baldintza espezifikoak betez gero, automatikoki emango zaie baimena, baldin eta ebaluazio-batzordeak ez badu erabakitzen ikastetxearen berezko baliabideak nahikoak direla argibide hauetan aurreikusitakoa aplikatzeko.

Ikastetxeei emango zaizkien baliabideak

Proiektuak onartzeak proiektu horiek gauzatzeko behar diren giza baliabideak ikastetxeko langile-zerrendan onartzea ekarriko du.

Ikastetxeetan irakasle-kopurua gehitu beharrik ez duten Curriculum Anitzeko programak ere baimendu ahal izango dira.

Programa lantzeko jarraibideak

Curriculum Anitzeko programen xedea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzea da. Horretarako, programa hauetako ikasleek gutxienez 18 ordu emango dituzte hizkuntzaren nahiz gizartearen eta zientziaren nahiz teknologiaren alorrak lantzen, ikastetxeak zehaztutako irakasgaien bidez. Gainerako irakasgaiak ohiko taldeetan (gutxienez hiru irakasgai) edota talde espezifikoetan landuko dituzte.

Talde espezifikoetan, arlo horretako irakasle batek hartuko du bere gain ikasle horien bakarkako tutoretzaren ardura, eta astean bi ordu emango ditu horretan.

Aurrez proposamen inklusibo bat aurkeztu eta onartu ondoren, ikastetxeak modu integratuan antolatu ahal izango du programa; hau da, CAko ikasleek ohiko taldeetan landu ahal izango dituzte irakasgai guztiak.

Modalitate horretan, curriculum eremura, diziplina arteko proiektuak edo jakintza-eremura antola daitezke. Edonola ere, ikastetxeak erabakiko du zer irakasgai eta unetan egingo den ahalegina ikasgelan, CAko ikasleek bermatuta izan dezaten oinarriko gaitasunak eskuratzeko behar duten laguntza. Era berean, irakasle-taldeak erabakiko du nork hartzen duen eta noiz gauzatzeko duen banakako tutoretzaren ardura.

Curriculum Anitzeko programak arautzeko 1997ko uztailaren 9ko Aginduaren arabera, ikastetxeak, taldearen oinarriko programa eta taldeko kide bakoitzarentzako banakako programa finkatu behar ditu. Ikastetxeek erabakiko dute zer irakasgai osatuko duten programetako eremu bakoitza, programa horietan bildutako ikasle bakoitzarentzat aurreikusitako ikasketa-ibilbide pertsonala kontuan hartuta.



Oinarriko programa lantzeko, ikasleek oinarriko gaitasunak eskuratzea bermatuko duten metodologia, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztu behar ditu ikastetxeak. Ikasleak denbora guztiz ohiko ikasgelan txertatuta badaude, ikasgelako ohiko curriculuma izango da oinarriko programa, eta egoera horiek jasota egon beharko dute bertan.

Banakako programa lantzeko, irakasleek oinarriko edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko dituzte, hasteko. Programa osatzeko, ikasleak oinarriko gaitasunak eskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituzten argibideak gehituz joango dira irakasleak, ikasturtean zehar.

Curriculum Anitzeko programa bat jarraitzen duen ikaslearen ebaluaziorako, oinarriko gaitasunak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak izango dira erreferentzia nagusiak, eta programaren ebaluazio-irizpide espezifikoetan islatuko dira.

Curriculum Anitzeko ikasleak ebaluatu egingo dira urtebeteren edo 2 urteren buruan. Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua eskuratzeko proposamena egiten ez bada, programa hauetan aurreikusitako baldintzak betez gero soilik izango du ikasleak Lanbide Prestakuntzako programetan sartzeko aukera. Ikasturte bateko iraupeneko Curriculum Anitzeko talde batean errepikatu egin ahal izango da, baina ezingo da DBHko ohiko ikasturte batera sartu.

Programaren baldintza espezifikoak

Curriculum Anitzeko talde berriak baimentzeko edo lehendik baimendutakoak berritzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Hurrengo atalean zehaztutako baldintzak betetzen dituzten gutxienez 8 eta gehienez 15 ikasle egotea, talde bakoitzeko.
- b) Programa hauetarako proposatzen diren ikasleak ez izatea DBHko 3. eta 4. mailtako ikasleen guztizko kopuruaren %15 baino gehiago.
- c) Baimendutako taldeen gehieneko kopurua ez izatea bi baino gehiago, DBHko 3. eta 4. mailtan 300 ikasletik gora dituzten ikastetxeetan izan ezik.
- d) Egoera hauetakoren batean dauden ikasleek soilik parte hartzea talde berean:
 - Urtebeteko programa ikasten ari direnak. 2A eranskina.
 - Bi ikasturteko programako lehen maila ikasten dutenak. 2B eranskina.
 - Bi ikasturteko programako 2. maila ikasten dutenak; ikasturte bateko ikasleak edo errepikatzaileak ere sar daitezke bertan. 3. eranskina.
- e) Horren ondorioz, aurkeztu beharreko dokumentazioari 1. eranskineko eskaera-orria gehitu beharko zaio, eta, hala badagokio, baita lehen aipatutako talde bakoitzari dagokiona ere.
- f) 2010-2011 ikasturtean jada baimendutako bi ikasturteko programako taldeetan, aurrera jarraituko dute ikasleek, 2011-2012 ikasturtean bigarren urtea ikas dezaten. Horretarako, 3. eranskina bete beharko da. Plaza batzuk hutsik geratzen badira, ikastetxeak urtebeteko programa ikasiko duten ikasleak sartu ahal izango ditu, egoki irizten badio. Curriculum Anitzeko programa errepikatzen duten ikasleak ere sartuko ditu.

Curriculum Anitzeko programen hartzaile diren ikasleek bete beharreko baldintza espezifikoak

Curriculum Anitzeko programen arabera ikasteko, baldintza hauek bete behar dituzte ikasleek:

- a) Ikaslea kide den taldearen irakasle-taldeak Curriculum Anitzeko programa ikasteko proposamena egin izana, ikastetxeko orientatzaileak eta tutoreak ebaluazio psikopedagogikoaren txostena egin ondoren.



- b) Ikasle horiei eta haien gurasoei edo ordezkari legalei informazioa eman eta entzun izana.
- c) 2011ko abenduaren 31n 15 urte beteta izanik, Curriculum Anitzeko 2 ikasturteko programa batean parte hartzeko:
- DBHko 1. edo 2. ikasturtea errepikatu izana.
 - 2010-2011 ikasturteko ezohiko deialdiaren ondoren, gehienez DBHko 1. eta 2. mailako 4 irakasgai edukitzea gainditu gabe.
- d) 2011ko abenduaren 31n 16 urte beteta izanik, Curriculum Anitzeko 2 ikasturteko programa batean parte hartzeko:
- DBHko 1., 2. edo 3. ikasturtea errepikatu izana.
 - 2010/2011 ikasturteko ezohiko deialdiaren ondoren, gehienez DBHko 1. eta 2. mailako 4 irakasgai edukitzea gainditu gabe.
- e) 2011ko abenduaren 31n 16 urte beteta izanik, Curriculum Anitzeko ikasturte bateko programa batean parte hartzeko:
- DBHko 1., 2. edo 3. ikasturtea errepikatu izana.
 - 2010-2011 ikasturteko ezohiko deialdiaren ondoren, gehienez DBHko 1., 2. eta 3. mailako 4 irakasgai edukitzea gainditu gabe.
- f) 2011ko abenduaren 31n 17 urte beteta izanik, Curriculum Anitzeko ikasturte bateko programa batean parte hartzeko:
- DBHko 1., 2., 3. edo 4. ikasturtea errepikatu izana.
 - 2010-2011 ikasturteko ezohiko deialdiaren ondoren, gehienez DBHko 1., 2. eta 3. mailako 4 irakasgai edukitzea gainditu gabe.
- g) 2011ko abenduaren 31n 18 urte beteta izanik, Curriculum Anitzeko ikasturte bateko programa batean parte hartzeko:
- Ikasturte bateko edo biko Curriculum Anitzeko programa bat ikasten aritu izana, eta irakasle-taldeak Graduatu titulua ateratzeko proposamenik egin ez izana.

Deialdiaren ebazpena

Hezkuntza Sailburuordeak uztailaren lehen hamabostaldian ebatziko du 2011-2012 ikasturterako Curriculum Anitzeko taldeak baimentzeko deialdi hau, behin-behinekoz. Behin-behineko ebazpen hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko webgunean argitaratuko da, eta ikastetxeek 10 eguneko epea izango dute egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko. Ikasturte hasieran, Curriculum Anitzeko programetarako proposatutako ikasle-zerrenda eta egiazki haietan eskolatutako ikasleen zerrenda ea bat datozen egiaztatuko du Hezkuntza Ikuskaritzak. Ikuskaritzak aurreko egiaztapena egin ondoren idatzitako txostenean oinarrituta, eta ikastetxeen erreklamazioak kontuan hartuta, Hezkuntza Sailburuordeak behin betiko ebatziko du deialdia.



Baremoa

Eskola-porrotaren maila: ikasturtea gainditu ez duten eta titulua eskuratu ez duten DBHko ikasleen **P** portzentajea: (2009-2010 ikasturteko datu ofizialak)

$P < 5$	3 puntu
$5 \leq P < 10$	8 puntu
$10 \leq P < 15$	13 puntu
$15 \leq P < 20$	18 puntu
$20 \leq P < 25$	23 puntu

$25 \leq P < 30$	28 puntu
$30 \leq P < 35$	33 puntu
$35 \leq P < 40$	38 puntu
$40 \leq P < 45$	43 puntu
$45 \leq P$	48 puntu

Aukeratzten diren ikastetxeen berariazko betebeharrak

- a) Honako agiri hauek ikasketa-buruaren zaintzapean geratuko dira, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo: ebaluazio psikopedagogikoaren txostena, programa horietan parte hartzeko irakasle-taldeak egindako proposamena, eta proposamen hori familiari eta ikasleari komunikatu zaiola jasotzen duen idazkia.
- b) Curriculum Anitzeko programak irakasteko baimena lortzen duten ikastetxeek landuta izan beharko dituzte oinarriko programa eta banakako programak, edo gutxienik programa horiek arautzen dituen aginduaren (1997ko uztailaren 9ko Agindua, uztailaren 29ko EHAAn argitaratua) 6. eta 7. artikuluetan zehaztutako alderdiak. Dokumentu horiek Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira, 2011ko irailaren 30erako.



A – 5. 1. ERANSKINA

CURRICULUM ANITZEKO TALDEAK BAIMENTZEKO ESKAERA-ORRIA

Ikastetxea: Kodea:

Udalerria: Lurraldea:

Goian aipatutako ikastetxeko zuzendariak adierazten du ezagutzen dituela Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Curriculum Anitzeko taldeak baimentzeko ezarritako baldintza eta betekizunak, eta, Hezkuntza Sailburuordearen jarraibideak betez, Curriculum Anitzeko honako talde hauek osatzeko baimena eskatzen du:

Taldea	Ikasturte 1ekoa 2A eranskina	2 ikasturtekoa (1. urtea) 2B eranskina	2 ikasturtekoa (2. urtea) 3. eranskina
Kopurua			

.....(e)n, 2011ko(a)ren(e)(a)n.

Zuzendaria



A – 5. 2A ERANSKINA

CURRICULUM ANITZEKO URTEBETEKO PROGRAMARAKO PROPOSATUTAKO IKASLEAK

Ikastetxea: Kodea:

Udalerria: Lurraldea:

	ABIZENAK ETA IZENA	11/12/31n duen adina	DBHn errepikatu duen ikasturtea	2010-11 ikasturteko ikasmaila ¹	Gainditu gabeko DBHko irakasgai- kopurua
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					

.....(e)k, ikastetxeko idazkari naizen aldetik,
emandako datuak zuzenak direla eta ezohiko deialdikoak direla ziurtatzen dut.

.....(e)n, 2011ko(a)ren(e)(a)n.
Zuzendaria Idazkaria

Ikuskaritzak bete beharrekoa

Baldintzak	BAI	EZ
Ikasleek betetzen dituzte baldintza akademikoak		
Ezarritako baldintzak betetzen dituzten gutxienez 8 eta gehienez 15 ikasle daude		
Proposatzen diren ikasleen kopurua DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleen guztizko kopuruaren %15 baino txikiagoa da		
ALDEKO TXOSTENA?		

Aurreko baldintzetako bat betetzen ez den arren aldeko txostena egiten bada, erabaki hori hartzea zergatik komeni den azaltzen duten xehetasunak adieraziko dira, dokumentu honi erantsitako beste batean.

Izpta.: Ikuskatzailea

¹ Markatu CA laburduraren bidez bi urteko programaren 2. maila ikasiko duten ikasleak eta CA errepikatuko dutenak.



A – 5. 2B ERANSKINA

CURRICULUM ANITZEKO BI URTEKO PROGRAMARAKO PROPOSATUTAKO IKASLEAK

Ikastetxea: Kodea:

Udalerrria: Lurraldea:

	ABIZENAK ETA IZENA	11/12/31n duen adina	DBHn errepikatu duen ikasturtea	2010-11 ikasturteko ikasmaila	Gainditu gabeko DBHko irakasgai- kopurua
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					

.....(e)k, ikastetxeko idazkari naizen
aldetik, emandako datuak zuzenak direla ziurtatzen dut.

.....(e)n, 2011ko(a)ren(e)(a)n.
Zuzendaria Idazkaria

Ikuskaritzak bete beharrekoa

Baldintzak	BAI	EZ
Ikasleek betetzen dituzte baldintza akademikoak		
Ezarrিতাক baldintzak betetzen dituzten gutxienez 8 eta gehienez 15 ikasle daude		
Proposatzen diren ikasleen kopurua DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleen guztizko kopuruaren %15 baino txikiagoa da		
ALDEKO TXOSTENA?		

Aurreko baldintzetako bat betetzen ez den arren aldeko txostena egiten bada, erabaki hori hartzea zergatik komeni den azaltzen duten xehetasunak adieraziko dira, dokumentu honi erantsitako beste batean.

Izpta.: Ikuskatzailea



A – 5. 3. ERANSKINA

CURRICULUM ANITZEKO BI URTEKO PROGRAMAREN BIGARREN MAILARAKO PROPOSATUTAKO IKASLEAK (2010-2011 ikasturtean ebazpen bidez onartua)

Ikastetxea: Kodea:

Udalerrria: Lurraldea:

PROGRAMAREN 2. MAILAN JARRAITZEN DUTEN IKASLEAK		
	ABIZENAK ETA IZENA	11/12/31n duen adina
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		

URTEBETEKO PROGRAMAREKIN TALDEAN SARTZEN DIREN IKASLE BERRIAK					
	ABIZENAK ETA IZENA	11/12/31n duen adina	DBHn errepikatu duen ikasturtea	2010-11 ikasturteko ikasmaita	Gainditu gabeko DBHko irakasgai-kopurua
1					
2					
3					
4					
5					

.....(e)k, ikastetxeko idazkari naizen aldetik, emandako datuak zuzenak direla ziurtatzen dut.

.....(e)n, 2011ko(a)ren(e)(a)n.

Zuzendaria

Idazkaria

Ados,
Izpta.: Ikuskatzailea